

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.
LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA:
Ainhoa Lodoso.
ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:
Andres Alberdi.
KAZETARIK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:
Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:
Maite Rementería.

ADMINISTRAZIOA:
Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:
Irati Agirreazaldegí, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.700 ale
LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



• kutxa fundazioa
• fundación kutxa

ZENBAT BURU



Elgoibarko tokizenak

HAINBAT ABURU

Inoiz Euskal Herritik kanpora txangoren bat egitera joan izan naizenean, beti somatu dut hango herririk eta lekuen izenekiko jakinmina; zein jatorri ote duen, zein den euren esanhaia, etab.

Euskal Herriko zazpi probintzietatik landa ere, badira makinatxo bat euskal izen barreiaturik, sasoi batean euskaldunak ibili izanaren lekuko.

Nire jakinmina asetu nahian, duela zenbait urte, Luis Mari Mujika euskal idazle eta filologo ospetsuaren TOPONIMIAZKO MATERIALAK izeneko liburuak irakurtzeari ekin nion. Liburuotako XV. alean berak dioenez, badira Gipuzkoan bakarrik 120.000 tokizen gutxienez: malkarrak, soroak, mendiak, zelaiak, etxeak eta beste hainbatenak.

Euskarak duen lekukorik oparo eta ziu-rrena; Erdi Aroko artxibategirik zaharrene-tarikoa dugula izen hauetan, dio berak. Bere ustez, ez gaztelaniak, ez katalanerak, ez frantsesak aurkez dezake Gipuzkoa bezalako lurralde hain txikiak duen oparotasun hori (toponimia txikia, noski, kontuan edukirik).

Jarraian, honela dio: “Euskararen eza-gutza seriorik gabe gure hizkuntza ‘pobrea’ dela esaten duen sasi-kritiko zenbaitek badu zer pentsa”. Eta material horiek argi uzten dutela euskarazko hiztegiaren osakera eta eratorpenaren aberastasun harrigarria, ale-maniaren parekoak alde askotatik begiratu-ta... Ez, euskara ez dela pobrea, gu euskaldunok baino. Eta zuzen dabil Mujika jauna, askotan ez dugu jakiten auzoko etxearen

izenak zer esan nahi duen eta.

Goazen orain Elgoibarren hain ezagunak diren Mintxeta, Toletxe edo Albitxurik zer esan nahi duten ikustera.

Mintxeta: mintegi - eta (eta= toki-atzizkia).

Tolotxe: dolare - etxe

Albitxuri: albitz - zuri

Dena den, Elgoibarren mintxerixa, tola-ria eta almitza edo elmitza osagaiak ahozkatzen ditugu. Gure baserri inguruan ere bada Atseleku izeneko toki bat, baina, nik ez nekien txikitzen zer adierazten zuen hitz horrek...!

Gurasoei galdetuz jakin nuen zergatik ipini zioten izen hori zelai-goien hari; hain zuzen, garai hartan gure baserrian ganajatekuak lepaka etxeratzen ziren eta bidean atsedan hartu behar izaten zuten leku horretan, beraz, Atseleku: atsedan - leku.

Gorago ere badira (Larrekogaina, Ota-muno, Burdinkurutz) eta beste hainbat izen bedeinkatu.


Ba, horrelaxe, Mujikaren liburuan Elgoibar eta Mendaroko 2640 izen hartuta daude; ezbairik gabe gehiago ere izan dira...

Altxor handia bezain aberatsa dugu benetan; merezi du aztertu eta mezubideetan sarriago azaltzea, herria hobeto ezagutuz maiteago izango dugu eta.

Besterik ez, poztuko nintzateke noizean behin bada ere gure izen horiek BARRENen tartetxo bat balute.

Juan mari Elustondo

*Eusko Jauralaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

“Mintxetako Futbol 7 txapelketan zergatik ez dago osasun-laguntzarik? Ba al dute jokalariek aseguruaren bat?” Udal Kirol Teknikariak zera erantzun digu: “Lokal berezia, botikina eta lehen asistentziarako materialak badaude Mintxetan. Asegurua ere badago, Arduraz Zibila babesten duen aseguru”.



KEXAK

- “San Pedron egon ginen eta kartxeltxo batean sua, barbakoa eta halakorik ezin dela egin irakurri genuen. Hala ere, jende asko eta asko **barbakoak egiten** ari zen”.

- Emakume bat etorri da BARREnera **Kanposantuko belarrak mozteko garaia** dela esanez. Gainera herriko jardinetako belarrak ere lotsagarri daudela adierazi digu.

- Haur batzuk etorri dira **Madalako** parkean jolasten zeudela eta nagusi batzuk arrazoirik gabe errieta egin ziotela esanez. **Parkea denentzako** dela adierazi nahi dute eta errespetua nahi dute, Plazan ere gauza bera gertatzen baitzaie.

ESKUTITZAK

Odola hartzea eskubidea bada, ematea betebeharra da

Gipuzkoa, nazio mailan nabarmentzen den probintzia izan arren, batzuetan odol beharrean aurkitzen gara uztaile eta abuztuan, odol-emaile asko probintziatik kanpo egotean direlako oportretan.

Elgoibar, MUNDUKO OSASUN ELKARTEAK odol-emaileari buruz egindako gomendioak gaintitzen dituzten ordezkarietariko bat da.

HORRETARA JARTZEKO ORDUA DA, momentua iristean oso tristea baita ospitaletako larialdi guneetan zera entzutea: zure emazte/senarrari, seme-alabari edo lagun bati ebakuntza bat egin nahi izanez gero, odola emango luketen 4 pertsona aurkitu behar dituzu.

Eta noski, senitarteko edo lagunak dituenak arras konpontzen du arazoa. Kasu honetan odol-emaileak emaile ezezagunaren izaera galtzen du, arazoa konpondu bezain laster, gertatuaz ahazten delako. Ba al da munduan norberak besteei anonimoki odola ematea baino ezer ederragorik?

Elgoibar, 1963.tik lanean dauden ordezkarietariko bat da eta ordutik 20.000 odolateratze (8.000 litro) baino gehiago burutu ditu. Bilboko, Bartzelonako eta Madrilgo eritetxeetan odolaren beharrean zeuden elgoibartarrei ere laguntza eman zaie. Gipuzkoan egunero 100 ontzi behar izaten da. Eta Jainkoari eskerrak behar hau ezohiko odol-emaitekin asetzen da. Gipuzkoan aurtun 500.000 odol-emaiteen zifra gaintituko dugu.

Azkenik, eskerrak eman behar zaie elkarte honen jarduera egokia lortzen lagundu dutenei. Aipamen berezia egin behar zaie Zuzendari Batzordeari, Bazkide-babesleei, Odol-emaileei, Udaletxeari,

Eroskiri, Vinos Aitzbizkarri, Txankakuari, Vinos Ibartxikiri, Aguas Alzolari, Caja Laboralari, Odol-emaileen lokalaren kargu dauden elkarteei eta odol-emaiteen ondoren emaileei eskaintzen zaizkien jakiak ematen dituztenei.

EGIN ZAITEZ ODOL EMAILE ZURE ZAIN GAUDE

Ramon Maiztegi

Ikastolako 5. mailako ikasleei

Pasa den asteko BARREneko zuen kexa irakurri ondoren, hasteko euskararekiko azaldu duzuen interes hori ikusteak asko poztu gaituela adierazi behar dizuegu. Segi horrelaxe aurrerantzean ere.

Bestalde, ATXUTXIAMAIIKA Begirale Taldearen propaganda orriak euskaraz eta gaztelaniaz banatzearen arrazoia oso simplea da: Propaganda hori ez da zuentzat, zuen gurasoentzat baizik. Eta ondo dakizuen bezala, gurasoen artean zoritxarrez asko eta asko dira euskaraz ez dakitenak.

Propaganda gurasoei zuzenduta dago eurak baitira Atxutxiamaikaren jardueretan parte hartzeko baimena ematen dizuetenak. Guretzat oso garrantzitsua da guk zer egin behar dugun zuen gurasoek ondo ulertu eta jakitea, horrela errazago apuntatuko baitzaituztete.

Gainera, propaganda bietara egiten badugu ere, lasai egon, jarduera guztiak euskara hutsean izango dira eta. Badakigu denok zaretela euskaldunak eta gure helburu nagusia zuek euskaraz ondo pasatzea da.

Besterik gabe, zuen galderari erantzun diogula iruditzen zait. Halere, informazio gehiago nahi izanez gero, etorri lasai Ubirtarten dugun lokalera eta gustura emango dizkizuegu nahi dituzuen azalpen guztiak.

Maria Jesus Iranzo

Atxutxiamaika B. T. ko zuzendaria

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



Quanita Txurrukak ekarri digun erretratu hau 1969. urte inguruan aterata dago. Data zehatz-zehatza ez bada ere, urte horren bueltakoa dela esan digu. Elgoibarko frontoiren batean, esku pilota txapelketa baten ostean ageri zaizkigu ezkerrean **Sabin Txurruka**, txapelduna eta **Jose Bollar** eskuman, txapeldunordea.

Sabin Txurrukak urte mordoan eman ditu frontoirik frontoi esku pilotan. Afizionatuetan aritu izan da beti. Ezaguna da gizon honek erretiratu arte erakutsi duen sasoia. Adibide modura aipatu iaz San Migelen eta Sigman txapeldun izan zela.



PLAZAOLA

Kidea 
ASESORIA ETA CONSULTING
- Kontabilitatea - Lana - Fiskala - Aseguruak -
INBERTSIO PROIEKTUAK
Ibaitarte industrialdea, 5 - 169 P.K. - Tel. 74 08 91 - ELGOIBAR

Orain Leku Ederren
GOXO
*Gonokiak, Fruitu zikuak,
etxean egindako barkiloak,
erroskilak,...* **ZURE
MERIENDAK
GUREKIN!**

HISPANIA  **ZURICH**
J. Romera
Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.
Artekale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 08

BOUTIQUE DEL PAN
Enpanadak Enbutidoak
Baserriko ogia Bolleria
San Bartolome, 6 / B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

Arozenatarrak: hiru belaunaldi okinean

Gazteok nekez gogoratzen dugun arren, beste elgoibartar guztiak ondotxo akordatzen dira Arozena okindegiaz. San Frantzisko kalean zegoen eta orain dela 10 urte itxi zuten. Baina, zein da okindegia honen benetako historia? Angel Arozena eta bere emazteak kontatu digute xumetasunez eta etengabeko lanez idatzitako istorio polit hau. Aiton-amonek bakarrik kontatzen dituzten horietakoak.

Historio hau orain ehun urte baino gehiago hasi zen, San Antolineko errota eta okindegian. San Antolin inguruko lurrak Jose M. Caballero izeneko militar batenak ziren. Gizon hau San Antolinen zegoen zentral hidro-elektriko baten jabea zen. Zentral honek Deba ibaitik hartzen zuen ura eta ur hau zentralera iritsi baino lehen, okindegiko errota erabiltzen zuen Jose Ramon Arozenak, Angelen aititak. Okindegiko lurrak Jose M. Caballerori alokatutakoak ziren.

Jose Ramon eta bere emazte M. Josefa Unamunzagak hamar seme-alaba zituzten: bost mutiko eta bost neskato. Angelen aita horietako zaharrena zen, Jose Ignacio. Honek eta bere anaia Felipek hartu zuten gerora okindegia. Jose Ignaciok sei seme-alaba zituen eta Felipek zortzi. Horrela, bi familia

bizi izan ziren San Antolineko errotan. 18 pertsona guztira.

Malakate astoa

Okindegia bi errota zituen, bata garia ehotzeko eta bestea artoarentzat. Oretzeko beste tresna bat zuten, *Malakate* izeneko asto baten indarrak baliatzen zena. Zentral elektrikoa tokiz aldatu zutenean uretako errota aldatu eta elektrikoak erosi zituzten. Elektrizitatea iritsi zenean ogiaren produkzioa eta kalitatea dexente igo ziren, garia eta irina garbitzeko tresnak erosi baitzituzten.

Okindegian garia eta irina erosten zituzten. Gariarekin irina egiten zuten errotan. Ogia, Elgoibarren ezezik, Altzola, Mendaro eta Mutrikun ere banatzen zuten. Lehenbizi

garraioa astoz egiten zuten, geroago bi erroberako gurdia erabili zuten eta azkenik 1930ko hamarkadan furgoneta bat erosi zuten, Fiat SS 5684. Garai hartan Elgoibarren bost auto bakarrik zeuden, horietako bat Fiat-a.

Gerra garaia

Okindegiko bezero asko baserritarrak ziren. Batzuk irina hartzen zuten gariaren truke eta gero etxean egiten zuten ogia. Beste batzuk ogia erosten zuten aste osorako. Ogia ez zen gaur ezagutzen dugunaren modukoa. Ogi pieza bi kilotakoa zen eta prezioa pezeta bat eta hamar zentimo.

Urteak pasa eta garai latzak iritsi ziren. Gerra denboran nazionalesk Elgoibar hartu zuten eta

herriko mutil asko behartu zituzten beraiekin borrokatzera. Angelek hemezortzi urte zituen garai hartan eta bera izan zen horietako mutil bat.

Urte gogorak izan ziren. Eskasia handia zegoen, garia Arjentinatik iristen zen baina azala besterik ez zen. Gari zaharra zen eta oreka egitea oso zaila gertatzen zen. Horregatik, ogia egiteko modu berriak asmatu behar zituzten. Gari hau agortu zenean artoa erabili zuten eta berriz ere artoa amaitu zenean, barazkietatik ateratako semola antzeko zera bat erabiltzen zuten. Angelen esanetan emaitzari ezin zitzaion “ogi” deitu, “baina zegoenarekin moldatu behar zen”.

San Batolome kalera

Gerra ondoren, 1945. urte aldera, okindegia, errota eta labeak San Batolome 28 zenbakian jarri zituzten. Lokala Arriola

“Bi errotaz gain, oretzeko Malakate izeneko astoaz baliatzen ziren”



Benedicta Arozena, Nafarroa enparantzan, 1930. hamarkadaren lehenengo urteetan.

ahizpei erosi zien eta nahiko txikia omen zen. Elgoibar industrializazio prozesuan zegoen eta biztanle kopurua asko igo zen. Poliki-poliki, 1954. urtean San Frantzisko kaleko 31. ean ireki zuten lokal berria, lehen Alkorta oihal tailerra zegoen tokian hain justu. Lana biderkatu egin zen eta labe gehiago jarri behar izan zuten. Ogia eta janaria hasi ziren banatzen etxeetara. Jose Ignacioren hiru seme-alabek hartu zuten okindegia. Emakumeek ogi banaketa egiten zuten eta gizonak okindegian egiten zuten lan, familiakoak ez ziren beste kide batzukin.

1953ko uholdea

Angelek eta bere emazte M.Teresak ederki

“1953. urtean, Angel eta M.Teresaren ezkontza egunean, demaseko uholdeak egon eta 8 egun beranduago ezkondu behar izan zuten”

gogoratzen dute beraien ezkontza eguna. 1953. urtean izan zen eta egun hartan sekulako uholdeak izan ziren. Ezkontza Altzolan zen baina uholdeak zirela eta Angelek okindegira joan behar izan zuten. Ia metro bat ur zegoen eta sotoan urde bat zuten. Ura ateratzera sartu zirenean sabaiko argiontzi bat erori eta zerria elektrotutatu egin zen. Zortzi egun beranduago ezkondu behar izan ziren Angel eta M.Teresa.

Herria orain baino askoz txikiagoa zen eta

Angelen esanetara “familia handi bat ziren herritarrrak”, denek ezagutzen zuten elkar eta denek batera egiten zioten aurre arazoei. Herriaren kontzeptua gaur egun baino errotuagoa zegoen. “Kaleko dendari eta okinekin harremanak onak ziren”.

Jubilazioa

Urteek aurrera egin ahala Angelen seme-alabek ez zuten okindegiarekin jarraitzeko asmorik azaldu. Horrela, 65 urtekin jubilatu egin ziren. Gaur egun goizeko 8etan jaiki-

tzen dira, pasiatu, mezara joan, irratia entzun eta horrelakoak egiten dituzte. Gaur egungo okindegiak gustuko dituztela diote. Ogia gaez ezezik egunez ere egiteak aurrerapen handia suposatzen du, horrela ogia beti fresko-baitago.

Okindegia orain 10 urte itxi zuten baina pozik eta trankil, misio bat bete zutelakoan. Oroimenik onena, bikoteak dioenez, “okindegia familiako negozio bat izan zela eta haren inguruan familia elkarrekin bizi izan zela lanean, hiru belaunalditan”. Zorionak hainbeste urtean lan egin ondoren umore eta baikortasunez ikusteagatik bizitza. Guztiontzat dira adibide.

IRENE ORMAZABAL

Nor da Elkarri?

Nola ikusten dugu gaur bake egoera?

Elkarri Gizarte Mugimendu bat da, Euskal Herrian dagoen gatazkan bitartekari lana egin nahi duena Gobernua eta ETaren artean.

Gatazka horren irtenbide bakar bezala elkarrizketa sortu nahi du, elkarrizketaren bidez AKORDIO batera hel gaitezen.

Hori dela-eta, zera nahi dugu azpimarratu:

- Bake horrek zuzentasunean oinarriturik izan behar duela guztiz. Bestela, bakerik ez dugu ezagutuko.

- Giza-eskubideak errespetatuz.

- Eta Herriaren eskubideak.

Bestalde, momentu hau itxaropentsu ikusten dugu eta oraindik ahulak badira ere, seinala bezala zera ikusten dugu:

- ETak eskaini berri izan duen su-etena, nahiz eta oso

laburra izan, ez da lehena izan eta uste dugu ez dela azkena izango.

- Gobernu berriak duen erronka gure herrian benetako bake prozesu bat irekitzea da, elkarrizketaren bidez AKORDIO batera heltzeko. Epe luzea du, lau urtetakoa eta guk ez dugu zalantzarik horretan saiatu beharko dela.

- Herriaren bakerako borondatea gero eta nabarmenagoa da. Politikoen aurretik doaz eta Herriaren presioa handia da. Herriak presio hori gehituz gero, BAKEA NEGOTZIATZEN hasiko beharko dira, ez dute beste erremediorik izango.

- Bukatzeko, gaurko egoeran pentsatzen dugu, merezi duela-ko arriskatzek eta bakearen aldeko apostu bat egiteak.



okindegia eta gozotegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR


MIREN
arraindegia

Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

KAROBI
PUB

ELGOIBAR
Tel. 74 06 37
San Frantzisko, 37

Bakea lortzeko aukerarik ikusten al duzu?




KARMELO ALZIBAR
62 urte, jubilatua

Gaitza ikusten dot ze Gobernu Zentralari ez jako ikusten borondaterikan eta berari tokatzen jako lehenengo pausua ematia.



MARI JOSE TRUEBA
38 urte, administraria

Momentua ona izan daiteke hitzegiteko baina akordio batera iristea zaila izango da, alde guztiek asko zeditu beharko lukete eta iritziak oso kontrajarriak dira, batez ere orain PPrekin.



JOSE M. ONDARRA
65 urte, jubilatua

Nik zaila ikusten dot, borondatia eukitziakin ez da nahikua, pakia eraiki ein bihar da eta momentu honetan gaitza ikusten dot.



PELLO MENDIZABAL
38 urte, irakaslea

Edozein une da aproposa. ETAK alternatiba demokratikoa du eta borondatea ere azaldu du baina paktoak baldintzak jarri ditu. Borondatea alde batetik bakarrik dago.



TERE DE LUIS
39 urte, etxeoandrea

Momentu guztiak dira onak pakea lortzeko. %95a pakearen alde gaude baina ETA defendatzen duen sektoreak nahi ez duen bitartean, alferrik da bestean borondatea.



AGURTZANE BASTIDA
33 urte, garbitzailea

Nik usten dot baietz baina ez dot borondate nahikua ikusten, danon aldetik ikusi biharko zian pausak ze hizketa asko bai baina gero inork ez dau ezer eitzen.

**ASESORIA
GOZAR**

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

 **EGONDO, S.L.**

METALEZKO ERAIKUNTZAK
GALDARAGINTZA LANAK OROKORREAN

Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

 **CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak*

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

■ Gazte Asanblada

Elgoibarko Gazte Asanbladak kale-ratutako idatzi batean, zera adierazten du: “Udalari luzatutako galderaren erantzuna Drogomenpekotasunen teknikaria den Kati Pons-en ahotik jaso genuen Errotatxok maiatzaren 3an antolatutako zuen mahainguruan”. Gazte Asanbladak “Gaztetxe baten proiektua burutzea drogomenpekotasunen prebentziorako eta gazteen etorkizunerako positiboa” zen ala ez galdetzen zien Udal arduradunei. Gazte Asanbladak hilabeteak eman ditu erantzun baten zain eta idatzian adierazten dutenez, Kati Pons-ek proiektua “positiboa” zela esan zuen alkoholari buruz egin zen mahainguruan. “Gure eskaeraz arduratu den bakarria HBko Marcos zinegotzia izan da, gure eskerronak berarentzat; gairontzekoentzat, mesprezu eta ezaxolakeria nahastea. Interes politikoak gizarteko beharren gainera daudela egiaztatzen dugu”.

■ Gestoren asanblada jaiak direla eta

Urtero bezala Amnistiaren aldeko Batzordeek San Bartolome jaietan txozna jartzeko asmoa dute. Txoznen inguruko gora-beherak zehazteko bilera egingo dute datorren ostegunean, hilak 18, Kimetz elkartearen. Bilera arratsaldeko 8etan hasiko da.

Papera birziklatzeko deia luzatu die herritarrei Mankomunitateak



Deba Beheko Mankomunitateak papera eta kartoia birziklatzeko Beotibarreko Recycling S.L. enpresarekin kontratu berria egin du. Aurreko enpresarekin zeukan kontratuaren arabera, Mankomunitateak ez zuen ezer ere ordaintzen, eta zerbitzuaren truke jasotako papera eskuratzen zuen kontratistak. Mankomunitateko iturrien esanetan, “papera eta kartoiaren prezioa izugarri jaitsi da eta kontratistak ezin zion aurre egin papera jasotzeak zekarren gastuari. Hortaz, urtebete-

rako kontratua egin dugu enpresa berri batekin eta bildutako kilo bakoitzeko paperaren kostua 2,5 pta.koa da.” Hau horrela izanik, ahalik eta paper kantitate handiena jasotzea nahi du Mankomunitateak, hartara, papera jasotzeko zerbitzuaren kostua ahalik eta txikiena izan dadin. “Urtean 3.660.000 pta. kostatuko zaigu zerbitzua kontratatzea, hortaz, birziklatzearen beharraz jabetu daitezkeen eskatu nahi diegu herritarrei”.



Euskal Herriko 29 elkartek, Elgoibarko Izarra tartean, Euskara Elkartearen Topagunea deritzona sortu dute. Ekainaren 15ean Durangon bildu ziren 29 elkarteak eta Topagunea eratzea erbaki zuten, aurrerantzean euskara elkartearen bilgune izango dena. Amankomuneko oinarriak izanik, elkartearen arteko komunikazioa hobetzeko eta euskara elkartearen mugimendua indartzeko asmoz sortu da. Topaguneak Durangon izango du egoitza eta harremanetarako 94-620 19 18 zenbakia dago. Argazkian, Topagunearen batzordekideak; erdian F. Muniozuren presidentea.

San Fermin Txiki eguna ospatu zuten asteazkenean herriko haurrek Atxutxiamaka Begirale taldekoekin

San Fermin jaiak Elgoibarko haurrei hurreratzeko asmotan, "San Fermin Txiki" festa antolatu zuten Atxutxiamaka Begirale Taldekoek asteazken goizean. Udaleku Irekietan parte hartzen diharduten haurrei zuzenduriko ekitaldia izan zen arren, udalekue-
tan ari diren 140 hurrez gain, beste asko ere ausartu ziren Arnoren pony-en gainean eseri edo zezentxoan aurrean korrikaldiak egitera. "Estafeta kalea" motz geratu zen Plaza Handian ikusi ziren "karrereren" ondoan. San Fermin jaiak izanik,

ezin falta txupinazoa, santuaren aurrean abestea eta entzierroa. Benetako zezenen ordeztuz, 5. mailako haurrak zezen moztorra jantzita egin zuten entzierroa.



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteko BAZKIDEENTZAT OHARRA

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteko Euskal Herriko EUSKARA ELKARTEEN TOPAGUNEAKo kide izatea erabaki du. Topaguneko kide izateagatik kuota bat ordaindu behar dugu eta diru hau lortzeko bazkideon kuota altxatzea pentsatu dugu.

Urteko kuotaren igoera honako hau izango da: - 4.000 ptako kuota duzuenok 500 ptako igoera.

- 2.000 ptako kuota duzuenok 250 ptako

igoera.

Gai honi buruzko informazio gehiago nahi edo-eta kezka bat izanez gero, pasa



Manu Sanchez:

“Lituanian akrobazia egitea izan da fuertena”

Tausten jaio zen, Zaragozan, orain dela 36 urte. Gaur egun Elgoibarren bizi da Manu Sanchez. Magisteritza ikasketak hasi baina ez zituen amaitu, Haziendarako oposaketa batzuk atera eta Bilbon hasi zen lanean. 1987an Bizkaiko Aeroclub-eko bazkide egin

eta Hegazkineko Piloto Pribatu titulua eskuratu zuenean jakin zuen bere bizitza nondik bideratu. Orduetik, Ameriketara izan da piloto komertzial titulua lortzen, Lituanian akrobazia ikastaroak egin ditu... Hegan egitea da Manuren ametsa.

- Hegan egin nahi zuen mutiko bat nola sartu zen magisteritzan?


- Beharbada garai hartan ez nuelako gehiegi pentsatzen etorkizunean. Magisteritza karrera motza zen, nahiko erraza... Halere, 14 urte nituenean Iberiara joan nintzen pilotu izateko zer egin behar nuen galdetzeraz.

- 1990ean EEBBetara joan zinen.

- Bai, lanean eszedentzia eskatu eta Texasera joan nintzen; pilotu izateko modurik merkeena da. 9 hilabete egon nintzen Fort Worth-en, Texas-en eta bertan Piloto Komertzial titulua, IFR kalifikazioa eta Nazioarteko radiofonista titulua eskuratu nituen. Gero, Oklahoman Polimotoreen pilotu titulua jaso nuen.

- Ondoen Bilbora itzuli zinen.

- Bai eta hemen ez zidaten EEBBetako titulua konbalidatu. Editorial batean hasi nintzen lanean Bilbon eta gero telebista produktora batean, gaur egun hor jarraitzen dut. Baina, 1993an Fresnora joan nintzen pilotu bezala lan egiteko asmoz. Hainbat kontaktu egin nituen baina zaila zen ez bainuen lan baimenik. Horregatik



“Nire asmoa, hegazkina alokatu eta jendearrekin pasiarak ematea da, ahalik eta ordu gehien egiteko”

Bilbora itzuli nintzen berriz.

- Ertafrikako hiriburuan izan zenuen lanerako aukerarik.

- Bai, diamanteak saltzen dituzten enpresa batean eskaini zidaten baina ez nuen hartu, batetik, hegazkinek ez zutelako seguritate eskaintzen eta bestetik, herrian bizi zen inestabilitateagatik.

- Batean eta bestean ibili izan zara.

- Bai. Hegan egitea ez ezik bidaiatzea ere asko gustatzen zait, herri eta

kultura ezberdinak ezagutzeko. Ideala? Urte bat toki batean eta beste bat beste herri batean pasatzea, beti ere hegazkin pilotu lanean.

- Zer falta zaizu pilotu profesionala izateko?

- 1.500 orduko esperientzia izatea hegan eta azterketa bat gainditzea. Momentuz 500 ordu daromatzen. Hegazkinak alokatu eta jendearrekin pare bat orduko pasiarak ematen ditut. Era horretan, praktikatzeko gain, alokera merkeagoa ateratzen zait.

- Ez al da garesti atera-

- tzen?

- Bai. Espainian pilotu izan nahi duenak 6 eta 11 milioi artean ordaindu behar ditu. EEBBetan askoz merkeagoa da, bate-tik gasolina bera merkeagoa delako. Hegazkin enpresa asko dago eta herri gehienetan dago aeroportu txikiren bat.

- Zergatik gustatzen zaizu hainbeste hegan egitea?

- Beharbada makina bat nire menpe izateak sortzen didan sentsazioa gustatzen zait eta horri gehitzen badiozu airean zaudela, ba are hobeto.

- Sentsazio fuerteen bila.

- Bizitza topera disfrutatzea gustatzen zait. Lituanian akrobazia ikastaro bat egin nuen Vitas Lapenas-ekin, gaur egun selekzio nazionalako entrenatzailea dena. Hegazkin barruan pilotatzeaz gain, beste batek gidaturiko hegazkinaren gainean ondo lotuta ibili izan naiz. Oso fuertea da, ezin da hitzez azaldu.

- Zer gertatzen zaizu egiteko?

- “Caida libre” deitzen dena probatu nahi nuke, hegazkinetik bota eta airean poliki-poliki erori, azkenera arte parapentea zabaldu gabe.

BARREN

O.H.O.KO IKASLEKIN EGINDAKO 25. GEHIGARRIA



Herri Eskolako 3. eta 4. mailakook hiru eguneko irteera egin genuen Iparraldera. Esan beharra dago oso baliotsua izan zaigula asko ikasi baitugu. Inguruetako herriak ezagutu eta ikusteaz gain (Donibane Garazi, Azkarate, Baiona, Biarritz, Ortzaize, Irisarri, Baigorri...) txango ugari egin genituen. Baso batera joan, oreinak ikusi eta jaten eman genien; baserri bat bisitatu genuen ume bakoitzak gazta bat eginez eta bertan zeuden abere guztiak eta baratza lantzeko auke-

ra ere izan genuen. Biarritzeko Itsas museoa egon ginen, polita benetan! Mota guztietako arrainak zeuden: marrazoa, mortsa, itsas-txakurra... Donibane Garazin buztina lantzen den denda batera hurbildu ginen.

Azkenik, herrira itzultzean Ferrariak saltzen diren denda bisitatzeko zortea izan genuen. Ikaragarria izan zen denontzat!

Harrituta gelditu ginen Iparraldeko garbitasun eta isiltasunarekin. Adibide hori jarraitu behar genuke!

Tristeza

Jonek eskolako kalifikazioak ematen dizkio aitari. Semearen notak ikusten dituenean amorru bizian jartzen da hau:

- Fisika 0, Matematika 0, Natur Zientziak 0... Baina, zer da hau! Honek zigor gogorra merezi du!
- Bai, noski -erantzuten dio mutikoak- baina nik ez dakit irakaslea non bizi den.



Jakitunen eskutik

Umeak eta uda

Uda partean denbora libre gehiago egoten da, ekintzak ugariagoak dira eta naturarekin harremana zuzenagoa. Hori dela eta, urtean zehar ez bezala hainbat arazo sor daitezke.

Gehien sortzen diren arazoak:

- Batetik insolazioak, erredurak, deshidratazioak, intsektuen pikadurak edo gastroenteritisa.

- Bestetik, gutxiagotan gertatzen diren arren, larriagoak izateagatik honako arazoak aipatzea komeni da: traumatismoa buruan edo gorputzeko beste tokiren bateko apurketak, bai altuera batetik erori izanaren ondorioz, bizikletatik jausi izanagatik, kotxe istripuegatik, itotze edo erdi-itotzea ur barruan, paralisia, tetraplejiak (buruz behera botatzeagatik uretara)...

Zein neurri hartu behar dira kasu hauetan?

- Eguzkiari dagokionean, goizeko 11ak eta arratsaldeko 3ak bitartean ahalik eta denbora gutxien jarri behar da eguzkitan. Beti ere, burua estalita eraman behar da txapel edo zapi batez, protezio altuko kremaz babestu azala, baita lainotutako egunetan ere, urak, hondarrak eta elurrak eguzki izpien erdia baino gehiago isladatzen dute eta ez da nahikoa itzalean ipintzea. Hurrek txikitatik ikasi behar dute eguzkitik babestea zeinen garrantzitsua den. Izan ere, eguzki izpiak urteetan zehar akumulatu egiten

dira azala zahartuz eta kantzerra sor dezakete aurre-disposizioa dutenengan. Eguzkia osasuntsua da tamainan hartuta, mugaz kanpo arriskutsua gerta daiteke.

- Erle, liztor, eltxo, txingurri eta medusenak dira ziztadurarik arruntenak. Kasu hauetan, lehenik eta behin eztena atera eta antiseptikoren batekin garbitu behar da. Antiseptikorik izango ez bagenu, amoniakoa edo ozpina erabil daiteke.

- Istripuen kasuan, neurriak hartu behar dira gerta ez daitezen.

- Beherakorik ez gertatzeko, kontuan izan behar dugu zer jaten dugun, ahalik eta egoera onenean daudden jakiak aukeratu behar ditugu (batez ere arraultza, mahonesa, krema pastelera, mariskoa eta abar direnen). Pisu normalaren %3a galduko bagenu, deshidratazio kasu baten aurrean egongo ginateke.

Puntu horretara iritsi aurretik azukredun edariak edo kafeinarik gabeko koladun edariak hartu, kantitate txikiak baina sarri. Likido asko galduko balitz, bai kaka egiterakoan bai oka-zerakoan, rehidratazio sueroa hartu behar da.

Uda sasoiaren haurrek primeran pasatzen dute, neurri minimoak hartzen baditugu, arazorik ez gertatzea lortuko dugu. Guztion onerako.



LOURDES ARANBURU
PEDIATRA

(Erredakzioan itzulia)

Ze iritzi daukazubeherapenei..... buruz?



"Ondo iruditzen zait proiektuak jarritako, horrela jende gehiago erori dezake baina denak batera joaten garenan ito egiten gara."

NORA EZENARRO. 13 urte



"Oro ondo daukela, horrela zuki nahi dituzun arropak merkeago erosten dituzu. Arropa batzuk oro garestiak dira."

MARIA DOMINGUEZ. 8 urte.



"Ez dut iritzi oro onik, gu enstainatzeko bakar-bakarrik egiten dute. Kalitate txarreko arropak saltzen dituzte."


LOINEZ POLO. 12 urte



Iqgc Cgpf qc
14 wtvg

Galde debalde

- 1- Nor ikusi nahi zenuke zure etxean?
- 2- Eguna ala gaua?
- 3- Egunean zenbat ordu ikusten duzu t.b.?
- 4- Zerk beldurtzen zaitu?
- 5- Zure burua definitu hitz gutxitan.
- 6- Non eskatuko zenioke sinatzeko autografo bat zure idoloari?
- 7- Zeinen bizitza nahi zenuke zeurea egitea egun batez?
- 8- Zein kontzertura joan nahi zenuke?



Mlagnlct k
11 wtvg

1. Blur taldeko abeslaria.
2. Gabian ibiltzia gehixo gustatzen jata, egunez eskolara jun bihar da.
3. Bi edo hiru.
4. Examinek.
5. Beti haserre.
6. Bere argazki batean.
7. Antonio Agilar-ena, "Zona franca"ko aurkezlearena.
8. Blur edo Take That-enera.

1. Penef, Bulgariako futbolista.
2. Eguna, argixa daualako eta jolasten ibiltzeko. Gaua iluna da, lo itxeko.
3. Gabian bi ordu edo, Txiskola eta holakuak.
4. Itsasuan asko kubritzen daban tokixan egotiak.
5. Majua.
6. Karpetan, laguneri erakusteko.
7. Futbolista batena.
8. Negu Gorriak-enera.

Zer da.....beroa.....?

INAKI IGLESIAS 9 wtvg



"Laba batean sartzen bazara beroa edukiko duzu."

IVONNE GUTIERREZ 14 wtvg



"Eguzkia ilargiarekin haserretzen denean sutan jartzen da eta alboan dauden planete-kin ordaintzen du. Lurra alboko planeta bat da."

ASIER CORDON 9 wtvg



"Izerditan zaudenean eta Mintxetan futbolean jolasten ari zarenean. Hori da beroa."

NADIA HADI 7 wtvg




"Erre egiten duen gauza bat da beroa."

ESTHER LADDANAGA 10 wtvg



"Eguzkia egiten duenean sentitzen duzun sentsazioa. Nik hondartzara joateko gogoia izaten dut."


EKAITZ INSAUSTI 8 wtvg



"Izerdia ematen duen gauza. Eguzkia ere beroa da."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nortzuk dira hauek?



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



SERGIO GALINDO

Ez, hiru hilabete beharrean gehiago izango balira, hobeto. Lagunekin atera, jolastu, mendira eta hondartzara joan, Errioxa eta Extremadurara joan... Ez naiz sekula aspertzen.

OLATZ URIGUENA

"Bai, aspertu egiten naiz ze herri txiki batera juten naiz eta ez dago jende asko. Astegunetan eskolara jun eta lagunekin jolastu eta asteburutan hondartzara eta mendira jutila egongo zan hobeto."



3. Asmakizunak:

- Zer da abestuz jaio eta une berean hiltzen dena?
- Kosk egiten du, ez du mokorik, hegan egiten du, ez du hegorik, txikitxo da eta gorritxo, igartzeko zailtxoa.
- Hiltzeko jaio naiz nire anaiaren ondotik, ez dut gorputzik, ez dut animarik, entzun nazaten bakarrik bizi naiz ni.


4. Zenbat suge daude?



Erantzunak 1.- Beder eta Sei, 2.- Udako oporrak ez al dira luzeegiak? 3. Doministihkua, Txinparta eta Ohartzuna, 4.- 12

Juan Iriondo

Apraiz
lurrindendakoa



● **Bizitzan zerk behar du makilaia on bat?**

▶ Momentu triste guztiek.

● **Zerk ateratzen dizkizu koloreak?**

▶ Zenbat eta urte gehixo euki orduan eta arpei gogorra dakazu.

● **Bizitza boltsa bat balitz, zein elementu sartuko zenituzke?**

▶ Osasuna, biharra eta oporrak.

● **Zer da edertasuna?**

▶ Gaztiak berezkua dake, naturak ere... Baina ez da fisikua bakarrik.

● **Haurtzaroa gogorarazten dizun usainik?**

▶ *Baron Dandy* eta *Lucky* gizonezkuenak eta *Maderas de Oriente* eta *Joya* emakumienak. Nere gurasuen garaiko perfumiak zian.

● **Usain sentsual bat?** ▶ CK One, Calvin Klein-ena.

● **Zerk estresatzen zaitu?** ▶ Egun txarra dakatenian jendian pelmadak.

● **Erlaxatzeko onena?** ▶ Txakurra hartu eta mendira jutia.

● **Eguzkia hartzeko kremarik?**

▶ Bai, eta protekzio altuakin, 10etik gora.

● **Dietarik egin duzu inoiz?**

▶ Bai, eta neretzako dietarik onena alkohola lagatzia da.

● **Zer esango zenioke zure buruari ispilu aurrean?** ▶ Bizitzak gauza politx asko ditxula eta animo, optimista izan bihar dala.

● **Zer eskatuko zenioke Aladinoren lanparari?**

▶ Naon modura urte asko hartzia.

● **Zein ikastaro egingo zenuke?** ▶ Informatikakua edo.

● **Zure bizitzako lema?** ▶ Bizi eta laga bizitzen.

● **Posible balitz zein unetan geratuko zenuke erlojua?** ▶ 30 urtekin.

● **Lepokoa bazina, noren lepoan egon nahi zenuke?**

▶ Ines Sastreren lepoan.

● **Zure birtute bat?** ▶ Espontaneo izatia.

● **Zein trebetasuna eduki nahi zenuke?** ▶ Kirola eitzeke soltura.

Oporretara joan nahi dudana lekua

DOINUA:

Txorruak eta txoriburuak

Uda heldu da beroarekin hau da urtaro ederra eta denok nahi izaten dugu joatea oporretara nik ere nahi dut aurten joatea leku oso urrutira lagun berriak egin ondoren mundua ezagutzera

Ezagutu nahi dudana tokian hondartza egon beharko eguzkitan beltza jarrita jolastu ahal izateko jende asko bertan egotea izaten dut nik gogoko uda eder bat igarotzea guztiontzat hori nahiko



ITZIAR LEIARISTI



ITZALA
Edergintza

San Frantzisko, 49 - 1 esk.
Tel. 74 43 03 - **ELGOIBAR**

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - **ELGOIBAR**
Gipuzkoa

ELENA
ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 tel. 74 11 89

Hiru hilabetez luzatuko dira Herri Eskolako obrak

Aspaldian Herri Eskolan zenbait arraila sortzen hasi zirela eta Udaletxera beren kexa helerazi zuten bertan iretenbide bat topa zezaten. Honela bada, joan den astean hasi ziren obrak eta hormigoizko hiru horma eraikiko dituzte harrieta bat sortuz eta lurrari eutsiz.

Proiektua Antton Jaime eta Iñaki Laskurain injineruek idatzi zuten eta 49 milioiko aurrekontua dauka. Dirudie-nez, eguraldiak ona behar du izan obren nondik norakoa bide onetik joateko, izan ere, lurrak lehorra behar du egon hormak ahalik eta hobekien usteko. Hori dela eta, proiektuaren hasiera atzeratzen joan da eta hemendik aurrera ikusi

egin beharko da eguraldiak laguntzen duen. Printzipioz, obrek 3 hilabeteko luzapena izango dute.

Obrak Geminis eta Ger enpresen atzeko aldean eta Herri Eskolaren aurreko aldean burutuko dira. Lehenengo horma Herri Eskolaren ondoan eraikiko da eta 45 m.ko luzera izango du. Bigarrena erdi aldean egingo da 70 m.ko luzapenarekin, eta azpiko aldean 90 m.ko hirugarren horma eraikiko da. Azken honen bitartez bideratuko da Errezabal erreka. Gaur egun aipatu errekaaren urak Deba ibaira doaz Ger enpresaren azpitik baina obra hauen bidez ubidea desbideratu egingo da gasolindegira aldera. Horretarako, hormaren ondoan 1,50 m.ko zabalera eta 60 m.ko luzerako kanala egingo da. Metro bateko diametroa duen hodi batek menditik datorren ura jaso eta Debaraino bideratuko du.

Era berean, Herri Eskolako saneamendu sarea berriz bideratuko da hodi baten bidez eta eskolako ataria ere konponduko da hor baitaude arraila gehien.



Hiru hilabeteren buruan dute hiru hormen obrak amaitzeko asmoa.

Arratoiak hiltzeko enpresa bat kontratatu du Udalak

Pertsona bakoitzeko hiruna arratoi zeudela munduan esaten zuten garai batean. Egia izan edo ez, kontua da egia badaudela. Erreka bazterretan, industrigune zaharretan eta antzeko txoko zikinetan pilatzen dira arratoiak eta antzeko animalia txikiak. Elgoibarraren konkretuki, trenbide inguruko etxebizitza eta Alkorta tailerrak, San Roke auzoan izaten da arazorik handiena.

Deialdia egin eta guztien artean CUCARAT enpresa aukeratu zuen Udalak desratizazioa egiteko herrian. Urte osoan zehar, txoko guztiak garbi mantentzeaz arduratuko da aipatu enpresa bai eta toki bakoitzaren arabera arazoari dagokion soluzioa topatzeaz ere. Udaleko iturrien arabera hau guztiaren zenbatekoa 500.000 pta. ingurukoa da gutxigora behera.



Erreka inguruan eta industrigune zaharretan daude arratoiak eta antzeko animaliak.

Albizkoa etxea (II)

■ Ipar aldeko fatxadaren zati haundiena, ibaian sartzen diren lau arkuen zabaleraren adinakoa, mendebaldekoarekin batera, Longa arkitektoak diseinatutako etxetik kontserbatzen direnak dira. Aintzinako zatian lau ardatzetan antolatzen dira lau solairuetako baoguneak, planteamendu arrazionala nagusi delarik.

■ Etxe azpiko lau arku dotoreak pilareetan daude sostengaturik. Pilare batean txanelak lotzeko zirgilo bat ikus daiteke eta pilare horren inpostatik harlandu apurtu bat irtetzen da, non garabi bat jarrita egon zitekeen zamak altxatzeko eta ibaitik barrurantz eta baita alderantziz ere, hau da, ibaira birarazteko ere. Azken elementu honek Altzola ibai-portua eta Albizkoa lonja garrantzitsua zirenekoak dira.


■ Albizkoa etxea eta lonjaren izena Albiz abizenetik dator,

albiztarrak izan baitziren lehen jabeak.

■ 1529. urtean etxe honetako Martin Albizkoa eta bere seme Juan ageri dira dokumentu batean, aitzak semeari gainontzeko ondasunak (lonja eta zamatzeko tresnak) utziz. Zortzi urte beranduego Juan ikus daiteke titular modura Altzolako beste lau lonjarekin (Juan Martinez, Juan Konporta, Pedro Altzola eta Miguel Yartua) bildu zelarik burdinoletoako kabildoarekin euren interesak defendatzeko.

■ XIX. mendean ibai-portua itxi zenean eta Altzolako senda-urberoez ospe handia hartu zutenean, lonja-etxea hotel bilakatu zen. Bere teilapean janari-denda, jatetxea, estankoa eta taberna izan ziren. Azken aldi honetan Naparkoa ere zeritzaion lonja-etxe ohiari, ziur aski Juan "Naparra" zelako jabea.

PELLO ARRIETA



Antonio Goiarzun Iriondo (1895-1989)



- 1895ko martxoaren 21ean jaio zen Mendaron.
- Bi anaia eta bost ahizpa ziren. Gaztetako urteak Mendaron pasatu ondoren, 18 urterekin Genaro Garaterekin ezkondu zen eta 11 seme-alabako familia sortu zuten.
- Garate sastreria zabaldu zuten gaur egun dagoen leku berean eta bizimodua jostundegitik atera zuten.
- Familia oso batua zen. Jostundegian denak elkartuta, lana gogor eginez, beti izaten zuten irribarre eta bromatarako umorea.
- Gantxiloa egitea zen Antoniaren zaletasunik handiena. Bere hiru seme Jesuiten bitartez, Japonen, Indian, Ameriketako bai eta Australian ere zabaldu ziren Antoniaren puntilak.
- Naturari garrantzi handia ematen zion. Emakume apala zen, sinesmen handikoa eta sakrifikatua, eta oso ezaguna herrian.
- 1989ko urtarrilaren 25ean hil zen 93 urterekin.

JUANITO GORSTIZA

XABIER

ILEAPAINDEGIA

*Eskatu
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97



Goki eRreformat, s.l.

ERREFORMAK

FATXADAK ETA TEILATUAK

OBRAK OROKORREAN

DEBA KALEA 12

TEL.: 74 42 23

20870 ELGOIBAR

MOTZAK

Ibaikoak, Estatuko selekzioarekin kontzentratuta

Ibai Klubeko kirolariak diren Egoitz Mora, Ganix Ostolaza, Xabi González eta Gorka Garate Segovian izan dira 15 eta 17 urtetik beherako Estatuko judo selekzioarekin stag batean parte hartzeko. Pasa den asteartera arte egon dira kontzentratuak eta Espainiako Judo Federazioko hautatzaileek zuzenduriko entrenamendu gogorra burutu dute. Egonaldian Estatu mailako infantil eta kadete kategorietako eliteko kirolariekin harremanetan egon dira. Elgoibarko judoek hilaren 20an amaituko dute 95/96 denboraldia, maila guztietako judoek Ermuan jokatu duten saio batekin.

Pilotako emaitzak


Elgoibarko Lagunak pilota eskolako benjaminak Berrizko "Txikito de Mallabia" izeneko xapelketa jokatzen dihardute. Pasa den asteburuan Abadiño, Igorre eta Plazentziko pilotarien aurka aritu ziren eta lehen partiduan izan ezik, gainontzeko hiruretan elgoibartarrak erraz nagusitu ziren. Lehen partiduan H. Iriondok tantu bakarragatik ez zuen Abadiño-ko Arriagaren aurka irabazi. Bigarren norgehiagokan Unai Gasteain 18 eta 5 nagusitu zen Igorreko Mientegiren aurrean. Hirugarren aurrez aurrekoan ere Elgoibarko pilotariak irabazi zuen. Azpiazuk 13 tantuko errenta atera zion Plazentziko Ariznabarretari. Azkenik, I. Muruak 18 eta 13 irabazi zion Igorreko Etxeberriari.



Sabas Boyero:

"Tenisa irakastea adina gustatzen zait jokatzea"

- **Aspalditik zabilta tenisean.** - Zazpi edo zortzi urtekin hasi nitzan Tomas Olmokin eta beranduago Ramon Mujikakin.
- **Txikitatik zenuen gogoko?** - Bai, betiko kirolak ez ditzut eitzen, ikustea gustatzen zaizkit baina praktikatu tenisa bakarrik.
- **Tenis klaseak ere ematen dituzu.** - Duela pare bat urte Tennis Eskola sortu zan. Ramon Mujikak klaseak eman eta ni laguntzaile moduan eon nitzan. Gero udako kurtsilluetan hasi nitzan.
- **Zer moduzko esperientzia?** - Asko gustatzen zait. Bai irakasle izatea bai tenisa.
- **Klaseak nolakoak izaten dira?** - Iniziazio klasiak daude eta perfektzionamendukoak. Oinarrizkuetak raketa nola heldu, kolpia nola eman, sakia, errebesa... hoiek dia eta maila piska bat gehixo dutenian efektudun kolpeak irakasten diaz: kolpe "liftatuak", "globoak", etab.
- **Helduak ala haurrak nahiago klaserako?** - Helduekin aurten hasi naiz serioago eta oso ondo moldatu naiz. Haurrak beti haurrak, kontrolaezina dia. Nahixao ditzut nagusiak, klaseak serioagoak dia. Ikasi, berriz, haurrak ikasten dute lehen.
- **Udako kanpian, jende gehiena tenisean apuntatzen**



da. - Ez dakit, agian modan egongo da. Egia esan, tenisa oso polita da eta telebistan ere asko ikusten da.

■ **Zaletuak ez direnentzat, berriz, aspergarria.** - Futbola gustatzen ez bazaizu, aspergarria irudituko zaizu. Gertatzen dana da telebistan tenisak erreza ematen dabala baina jokatzeko dozunian ikusten dozu tenisaren zailtasunak.

■ **Tenis profesionaletik at, badago kompetizioan aritzeko aukerarik?** - Donostiako klubetan eta horietan bai, baina klubeko bazkideentzat izaten diaz. Eibarren adibidez, badao Gabonetan torneo bat; iaz Elgoibarko batek irabazi zaban.

■ **Txapelketen falta igartzen da?** - Igual bai. Niri kompetizioa ez zait gustatzen, nahiago det hobby bezela hartzia. Baina Euskal Herrian antolakuntzan karentzia handia dao.

■ **Patinekin ere ibiltzen zara.** - Azken hiru edo lau urteotan zenbait ikastaro egin ditut eta udan kuadrilakoak Mintxeta aldean irrtetzen gera. Arzoa egualdixa da, eurixakin ezin leike irten.

- Adina: 19
- Tenislari bat: Pitt Sampras
- Jokatu duzun partidurik luzeena? Hiru ordukoa
- Belarrean jokatu duzu inoiz? Beti lurrean



Nora begira zaudete? Zatozte lehenbailehen gida baimena ateratzera!

LABRANAGA autoeskola

Gazte txartelarekin %10eko BEHERAPENA izena ematean

Santa Ana II - ☎ 74 10 11 - ELGOIBAR

260 lagun ari dira kirolean udako kanpainan

Udal Kirol Patronatuak antolatzen duen udako kanpainaren lehen astea pasatu ondoren partaide-tzak zertxobait behera egin duela adierazi du kirol teknikariak aurreko urteekin alderatuz gero. "Iaz 300 bat lagun zeuden; hala ere, gainontzeko herrietako kanpainetan Elgoibarren baino askoz gehiago jaitsi da partaidetza kopurua".

Dena den, daudenak daudela, gorputz-gurinak zerbait arintzeko aitzakiarekin, ondo baino hobeto pasatzen dute hilabete osoan zehar, eta bestela,

begira erretratukoei.

Ohi denez, tenisak jarraitzen du izaten kirolik arrakastatsuen, bai haurretan bai nagusietan. Azken hauetan iaz baino jende gutxiago apuntatu da aurten baina haurren kasuan, plaza guztiak bete egin dira. Patinaia da haurrek nahiago duten hurrengo bai eta nagusiek ere, eta ondoren, eskalada.

Betiko kirolez gain, naturarekin kontaktuan burutzen diren kirolak egiteko aukera ere badago asteburuetan, hala nola, puenting-a, kainioi jaitsiera eta espeleologia.

Partaidetza kopuruak

▼ HAURRAK

Tenisean	75
Eskaladan	25
Patinaian	40
Aerobic-ean	35
Mountain-bikean	25
Buzeoan	5

GUZTIRA 205

▼ HELDUAK

Tenisean	20
Buzeoan	2
Patinaian	15
Eskalada	8
Kainioi jaitsiera	5
Puenting/espeleologia	8

GUZTIRA 58

Beste datu batzuk:

- ▼ Aurrekontua 600.000
- ▼ Epea Uztailaren 1etik 26ra
- ▼ Irakasle kopurua 15
- ▼ Eskaintzen diren iharduerak 12
- ▼ Kirola egiteko lekuak . . . Mintxeta, IMH eta Ikastola

Neskak aerobic-ean eta mutilak bizikletan


Argazkia ateratzera hurreratu ginen egunean, neskatoek ez zituzten maillot elastiko eta koloretsuak jantzi, kasualitatea! Hala ere, intentziorik ez zitzairen falta. Argiñe Gabilondok irakasten die aerobic-a, "trotea", "jauziak" etab. Lehenengo saltaka egin zuten, berotze aldera. Gerriaren inguruan aroarekin bueltaka aritu ziren eta estiramenduen ostean gehien gustatzen zaiena: hankak gora, gero besoak, ondoren dena batera musikaren erritmoa jarraituz. Dударik ez dago aerobic-a moda bat baino gehiago dela.

Mutikoak, berriz, kasko, kulote, antieju eta lokatsez beteriko bizikletekin ikusi genituen. Jose Antonio Ruiz-en agindupean aritzen dira batean eta bestean. Indurain eta Olanoren parera iristeko asko falta zaien arren gogoz eta gustura ibiltzen direla esan ziguten. Hori bai, argazkiei begiratuz gero, gauza bat nabarrena da: zergatik ote oraindik ere neska guztiak aerobic egiten dutela eta mutikoek mountain-bike?



Datorren astean jokatuko dira Mintxetako Txapelketaren azken partiduak

Azken txanpan sartu da Mintxetako II. Futbol txapelketa. 38 talde ari dira futbol 7 izeneko modalitean parte hartzen eta dagoeneko jokatu da txapelketako lehen fasea. Larunbatean, hilak 13, final zortzirenak jokatuko dira; asteartean final-laurdenak; ostegunean hilak 18, final-erdiak eta larunbatean, hilak 20, finalak. Goizeko 10etatik aurrera izango diren final-zortzirenetan talde bakoitzeko 2 ekipo onenek eta hirugarren postuan geratu diren eta guztien artetik punturik gehien duten bi talderik onenek jokatu dute.



AGENDA

Larunbata, 13
10,00 Final zortzirenak
Asteartea, 16
19,00 Final-laurdenak
Osteguna, 18
19,00 Final-erdiak
Larunbata, 20
12,00 Finalak

EMAITZAK

Numancia 2 - Vaso Play 1
Lagun Toki 1 - Berrogei Duro 0
Rapid de Elgoibar 1 - Grassoper 9
Zokoa Club 7 - O. Frantziskana 1
S. Pitxote 2 - Gazteak 3
Lucky Luke 2 - La Colina 2
M. Lojan 2 - Lagun Onak 7
Thunderdome 2 - Karkis 5
Txirinbitxu - Koipez Ase (susp.)
12 Monos 6 - Cachi Potas 7
Euromixto 4 - B. La Amistad 3
Vaya Robo 5 - C.D. Vallecás 1
Ez Baikorrek 2 - Vultur Griphus 1
Xare 1 - Rebel Urbi 0
Krsiton Arrautzak 3 - P. Alaitz 5
Txirristaka 2 - Anorthosis 4
Manitu 13 - Emoioi Gatza 0

A Taldea	J	I	E	G	Puntuak
Zokoa	4	3	0	1	9
Grassopper	4	3	0	1	9
Lagun Toki	4	3	0	1	9
O. Frantziskana	4	2	0	2	6
Berrogei Duro	4	1	0	3	3
R. De Elgoibar	4	0	0	4	0

B Taldea	J	I	E	G	Puntuak
Numancia	4	2	1	1	7
Lucky L.	4	2	1	1	7
Vaso Play	4	2	0	2	7
Gazteak	4	2	0	2	6
La Colina	4	1	2	1	5
S. Pitxote	4	1	0	3	3

C Taldea	J	I	E	G	Puntuak
Lagun Onak	4	3	0	1	9
Karkis	4	3	0	1	9
12 Monos	4	2	0	2	6
Cachi Potas	4	2	0	2	6
M. Elgoibar	4	1	0	3	3
Thunderdome	4	1	0	3	3

D Taldea	J	I	E	G	Puntuak
Txinbitxu	2	2	0	0	6
Udaberri	3	2	0	1	6
Euromixto	3	1	0	2	3
Koipez Ase	2	1	0	1	3
La Amistad	4	1	0	3	3

E Taldea	J	I	E	G	Puntuak
Txinbitxu	2	2	0	0	6
Udaberri	3	2	0	1	6
Euromixto	3	1	0	2	3
Koipez Ase	2	1	0	1	3
La Amistad	4	1	0	3	3

F Taldea	J	I	E	G	Puntuak
P. Alaitz	4	2	2	0	8
Xare	3	2	1	0	7
Kriston A.	3	2	0	1	6
Putamierda	3	0	1	2	1
Rebel Urbi	3	0	0	3	0



Aire libreko zinea eta zine kluba antolatuko du Ongarrik datozen lau urteotan

Udala eta Ongarri Zine Kluba datozen lau urteotan aire libreko zinea eta zine kluba gestionatzeko akordio batera iritsi dira, Ongarriko kideek prentsaurrekoan adierazi zuten bezala. Udalak diru laguntza emango dio zine taldeari aire libreko zinea eta zine kluba antolatzeko. Elgoibarren ezezik, beste herri batzuetan ere aire libreko

proiektzioak egiteko baimena eman die Udalak.

Aire libreko zinea


Gaur, hilak 12, gaueko 22,30etan aire libreko zineko lehen pelikula emango da: "Babe, el cerdito valiente". Bihar, larunbata, "Jumanji" proiektatuko da. Uztaileko gainontzeko emanaldiak egun hauetan izango dira: 18, 19 (Folklore Jaialdia dela-eta, ostegunetan eta

ostiraletan izango da), 24, 25, 26, 27, 30 eta 31. Abuztuan, berriz: 19, 20, 21, 22, 27, 28 eta 29. Bi egunetako batean euria egingo balu, saio hori igandera pasatuko da. Irailan ez da aire libreko zinerik izango, baldin eta abuztuko pelikularen bat eman gabe gelditzen bada. Udalak eta Ongarrik sinatutako akordioaren arabera 17 filme proiektatuko dira aire libreko zinean. Ongarrikoek aulkiak bere

lekuan uzteko orduan "pazientzia" eskatu nahi diote jendeari "eta mesedez bukaeran aulkiak ez uzteko jaso gabe Plazan".

Egoitza Artetxen

Hemendik aurrera Ongarri Zine Klubak kegoitza izango da. "Otsailean eskuratu genuen arren, orain hasiko gara erabiltzen". Mezuak, galderak edo proposamenak luzatzeko buzoia bat egongo da. Zuzenbidea: Artetxe kalea 28, behea.



★ ★ ★ Z I N E K L U B A ★ ★ ★

Aire libreko zineaz gain, zine kluba ere Ongarriren esku utzi du Udalak. Urritik maiatzera bitartean, ostegunero gaueko 22,15etan zine klubeko pelikulak eskainiko ditu Ongarrik. "Zine komertzialaren aurrean eskaintza ezberdina izango da". Ostegunetan ezezik, hilero ostiral batean ere emanaldia egongo da, eta azaroan abenduan, martxoan eta apirilean hilean ostiral bakarria izan beharrez bi ostiraletan egongo da zine kluba. "Ostiraletan, osteguneko zine klubeko pelikula errepikatuko da, kanpoan ikasten daudenek ere ikusteko aukera izan dezaten".

Datorren larunbatean, hilak 20, izango da Folklore Jaialdia

Aurten sekula baino lehenago antolatu dute Udalak eta Haritz Dantzari taldeak X. Nazioarteko Folklore Jaialdia. Hilaren 20an izango da, larunbata. Ohi denez, Haritz Taldeko dantzariak gain, herrialde urrunetatik etorritako beste bi taldek parte hartuko dute X. edizio honetan: Errumania eta Taiwan. Arratsaldeko 7etan ongi-etorria egingo zaie dantzariari Udala areto nagusian. Jaialdia gaueko 22,30etan

izango da Olaizaga kiroldegian.

Sarreraren salmentari dagokionez, dagoeneko

txartelak aurrez eskura daitezke Txankakua Merkataria eta Zerbitzu Elkarteko dendetan hilaren 20ra arte. Sarrera orokorra 500 pta.koa da eta 200 pta. ordaindu beharko dute jubilatuta, 14 urtez azpiko eta Gazte Txartela dutenak. Herria eta herritarrek jaialdirako giroa aldera, Haritz Dantzari taldekoen erretratuak jarriko dira dendetan, herrialde ezberdinetan dantzatu izan dutenean ateratakoak.



AZKUE

Haritz, Taiwan eta Errumaniakoek hartuko dute parte aurten.



UEFA
EURO 96
England

EDU SANZ AITOR GALARRAGA

"Eurocopia barrutik ikustia pribilejio bat da"

Iritsi berri dira. Oraindik ere noiz edo noiz hitz bat edo beste ingelesez ateratzen zaie eta aitortu ez diguten arren, ziur gau bat baino gehiago pasako dutela futbolarien artean. Edu Sanz eta Aitor Galarraga Eurocopan izan

dira, barru-barrutik bizi izan dute gainera, kazetari akreditazioarekin ibili dira eta. Kilo batzuk gutxiago ekarri dituzte baina mila kontu.

Kotxea hartu eta Ingalaterrara.

- Bai, betidanikan bixori futbola gustatzen jaku eta jakin genduanian Ingalaterran izango zala Eurocopia ikustia pentsatu gendun, hasieran katxondeuan baina gero aukeria ikusi gendun eta gauzak preparatzen hasi ginan. Abioia, hotela... danetik barajau gendun baina kotxia merkiena zanez... eta askoz komoduaua alde batetik bestera ibiltzeko.

Ekainaren 6an atera eta uztailaren 1ean itzuli.

- Bai, ixa hilabete ein dou bertan.

Zenbat partidu ikusi dituzue?

- 13 edo 14, kotxiak bentaja hori ematen zigun. Egun bat partidu gabe interminabilia eitzen zan, kriston monuakin!

Eurocopia barrutik ikusteko

lekua izan duzue, gainera.

- Bai, Egin-eko kazetari akreditaziuakin jun ginan eta kriston bentajia da ze hasteko ez zera kolan zain egon bihar, ez dozu pagatzen eta toki pribilejiatu batian zaude. Telebisuan ikusten ez dian gauza mordo bat bizitzeko aukeria dakazu, afiluan ambientia zuzenian bizi dozu...

Zuek idatzitako artikulu batek "Zeinen handia den futbola!" titularra zeraman.

- Bai. Barrutik bizi ez dozun bitxartian ezin leike imajinatu zenbat gauza bil-tzen ditzun futbolak, ze ambiente sortzen daban, zenbat jende mobi-tzen daban, aktuaziuak ere egoten zian, mundu oso bat futbolarian inguruan.

Partidurik emozionalteena?

- España-Ingalaterra, partido oso ona izan zalako eta Alemania-Ingalaterra, semifinala. Pena bat izan zan Ingalaterra finalera ez ailegatzia ze kriston girua sortuko zan. Halere, finala oso ondo egon zan.



Salerosketak

❖ 52 neurriko karrerako BIZIKLETA saltzen dut.
☎ 74 31 65

❖ Bi KATU PERTSIAR salgai.
☎ 74 30 29 - 74 21 60

❖ TXISTUA eta KLARINETEA saltzen ditut.
☎ 74 32 94 Getatik aurrera

❖ PIANO BAT saltzen dut. Egoera oso ona.
☎ 74 15 56

❖ Haurrentzako MOUNTAIN BIKE salgai. Prezio ona.
☎ 74 10 80 (arratsaldeko 7etatik aurrera)

❖ ARRAINDEGIA traspasatzen da Plaza Merkatuan.
☎ (94) 683 14 42

❖ POSTU BAT traspasatzen da Plaza Merkatuan.
☎ 74 36 38

Etxebizitzak

❖ Etxe bat alokatzen dut ALCOCEBERREN.
☎ 74 21 86

❖ ETXE BAT SALGAI. 4 logela, egongela-jangela, sukaldia eta komuna. Prezio interesgarria.
☎ 74 25 01

❖ PISU BAT alokatzen dut ALCOCEBER- LAS FIARTES hondartza ondoan. Telebista eta labadorarekin. Uztailean eta irailean.
☎ 74 22 08

❖ Apartamentua alokatzen dut BENIDORM-en. Hondartzako lehen ilaran. Torre-Levante eraikuntza, piztina, parking, labadora eta telebistarekin.
☎ 76 46 61 / 74 16 57

❖ ETXE BAT SALGAI SANTA ANA kalean. Hiru gela, egongela, bi komun eta sukaldia ditu. Prezio onean.
☎ 86 12 47 / 74 35 86

❖ PISUA SALGAI SAN PEDRON. Hiru logela, sukalde-jangela eta bainua.
☎ 74 25 94

❖ Etxebizitza alokatzen dut JAKAN UDAn. ☎ 74 15 22

Partikularrak

❖ ESTADISTIKA KLASEAK ematen duen norbait behar dugu orain bertan.
☎ 74 02 13

❖ Uztailean FRANTSESEKO PARTIKULARRAK emango didan norbait behar dut.
☎ 74 02 13

❖ KLASE PARTIKULARRAK ematen ditut udan. OHO, BBB, REM eta ingelesa.
☎ 74 15 82 Eduardo

❖ Tituludun irakasleak PIANOKO KLASEAK ematen ditu udako lanetan laguntzeko eta irailako examina prestatzeko. Baita, armonia, transporte eta repentizazioko klaseak.
☎ 74 04 11 Silbia

❖ Enpresarialesen lizentziatuak KONTABILITATE eta BALANTZE ANALISIAri buruzko partikularrak emango ditu udan Eibarren.
☎ 12 16 38 Ainhoa

Lana

❖ Neska euskalduna urte guztian eskaintzen da ETXEKO LANAK, UMEAK EDO NAGUSIAK ZAINTZEKO. Kotxearekin.
☎ 75 17 79

❖ HAUR BAT zainduko nuke UZTAILEAN. ☎ 74 17 61

❖ Astebukaeratan SUKALDEAN lan egiteko pertsona bat behar da.
☎ 74 37 71

❖ GONAK JOSTEN ditut neurri eta edozein motatako konponketak egiten. Zaharra ekarri eta berdina egingo dizut.
☎ 74 21 40 Konsuelo

Agurrak

❖ Zorionak Jesus Garitagoitia, gure aita xori, hilak 15ean 46 urte egiten dituelako. Ainhoa, Itxaso, Iosu eta emaztearen partez. Zorionak baita Aitor Garitagoitiari hilaren 21ean 22 urte egiten dituelako. Gu guztiak eta Basuetarren partez.

❖ Zorionak Erika Iriondori uztailean 8an bere urtebetetzea izan zelako. Sara, Leire eta Lorenaren partez.

❖ Hilaren 18an zortzi urte beteko dituen Ander Polori superzorionak bere arreba Loinazen partez.

❖ Zorionak Onintza Riberori, atzo, osteguna, 19 urte bete zituelako. Lagunen partez.

❖ Zorionak Olga Otaegiri gaur, hilak 12, bere urtebetetzea delako. Maitasunez familia eta lagunak.

Bestelakoak

❖ AUTOKARABANA bat alokatu nahi genuke abuztuan oporretan joateko.
☎ 74 41 12 Maite

❖ CARITAS-EK 90 cm-ko bi koltxoi eta butanozko sukaldia edo elektrikoa hartuko lituzke.
☎ 7415 09 / 74 12 57

❖ BETAURREKO BATZUK aurkitu ditugu San Rokeko haurtzaindegiaren inguruan. Galdu dituenak Udaltzaingora jo dezake.

❖ Uztailean eta abuztuan DONOSTIARA GOIZEZ joan eta arratsaldez bueltatzeko jendea behar da.
☎ 74 40 62 Agustin

Garajeak

❖ Marradun garaje bat alokatzen da pista beltzean.
☎ 74 01 77

❖ Garaje bat saltzen da King-Kongen.
☎ 76 17 95



OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko...743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak...740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Udal Kirol Patronatua744415
Kultura Zerbitzua742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...741008
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41
Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Zazpiki irratia74 34 74

12 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

22,20 AIRE LIBREKO ZINEA

“Babe, el cerdito valiente”

✓ Plaza Handian

13 LARUNBATA

22,20 AIRE LIBREKO ZINEA

“Jumanji”

17 ASTEAZKENA

19,00 EKAIN-EKO

PROIEKTUAREN ERAKUSKETA

Antolatzailea: Udala eta Debegesa

✓ Kultur Etxean

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
13, larunbata:	Etxeberria	Etxeberria
14, igandea:	Etxeberria	Etxeberria
15, astelehena:	Bidasolo	Bidasolo
16, asteartea:	Bidasolo	Bidasolo
17, asteazkena:	Bidasolo	Bidasolo
18, osteguna:	Bidasolo	Bidasolo
19, ostirala:	Bidasolo	Bidasolo

OKINDEGIA:

14, igandea: IDARRAGA

18 OSTEGUNA

20,00 GESTOREN ASANBLADA

✓ Kimetz elkarteak

22,20 AIRE LIBREKO ZINEA

19 OSTIRALA


22,20 AIRE LIBREKO ZINEA

ZineA

Babe, el cerdito valiente

Zuzendaria: Chris Noonan

Babe, ez da txerri arrunt bat. Granja handi batean bizi da beste animalia mordo batekin. Apur bat mesprezatuta dagoen arren, Babek, ardien artzaina izan nahi du eta txerri berezi-berezia dela erakutsiko die gainontzeko guztiei. Pelikula honetan aktoreak animaliak dira eta txerria pelikulako heroea bihurtuko da.



Jumanji

Zuzendaria: Joe Johnston
Antzezleak: Robin Williams,
Adam Hann-Byrd, Bonnie
Hunt.

Alan-ek Jumanji izeneko mahaiko joko baten tablero apaindu bat deskubritu zuen 12 urterekin. Bere lagun Sararekin tableroan jokoan hasi eta gauza arraroak gertatzen hasi ziren: Alan-ek dardoetan zenbaki bat atera zuenean tableroak irentsi egin zuen. 26 urte beranduago, Judyk eta Peter-ek Jumanji tableroa topatzen dute bere izebak alokatutako etxeko ganbaran. Haurrak jokoan hasten dira eta zenbaki majikoa ateratzen dutenean Alan mundu errealerara itzuliko da. Jokoaren gora-beherek harrapatuta, Sara topatu eta jokoak amaitu egin beharko dute.



Maria Urizar

ileapaindegia
eta solariuma

Errosario 9-1ezk.

☎ 74 44 89 ELGOIBAR

Baserriko
haragietan
berezia



Harategi Urdaitegia

San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behe. ☎ 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA